



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko maiatzaren 18a

67. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Babes sozialeko sistema publiko eta kalitatezko baten aldeko eta pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkakoa. Izapidetzeko ez onartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua hein batean aldatzen duena, amatasuneko edo aitatasuneko prestazioei dagokienez. EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Ezkerda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, Zangozaldearen egoera ekonomiko, turistiko eta soziodemografikoari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Interpelazioa, gazte-enpleguari buruzko politika orokorrari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Interpelazioa, enplegu publikoari eta behin-behinekotasunari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berehala har dezan konpromiso irmoa Hezkuntzaren arloan gastu publikoa arrazionalizatzeko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuaren aplikaziotik heldu diren murrizketak lehengoratzeko. Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Enpresetarako Nafarroako eredu inklusibo eta parte-hartzaile bat sustatzeko jarduketa plana egin dezan. Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Nafarroako Alderdi Popularreko eta Ezkerda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteek aurkeztu dute (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatu-tuan Nafarroa sartzearen aurka dagoela. Carlos García Adanero jaunak aurkeztu du (13. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu antolakuntza feministek kaleratutako manifestuarekin, genero indarkeriaren aurkako estatu-ituna 2018rako aurrekontuetan ez betetzeagatik. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu ulertzen duela Loxin 2002 SL enpresako plantillak bere profesionaltasuna eta eskubideak aldezteko hasitako borroka eta bere babesa adierazten baitio. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu gizartearen eta Tarajaleko Biktimen Senitartekoen Elkartearen eskaerarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa zein arrazoi izan zituen Nafarroako Gobernuak Larrialdietako Unitate Militarren uholdeen aurkako zerbitzuaren laguntza ez eskatzeko. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (15. or.).
- Galdera, goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten nafar ikasleentzako arreta-planari buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko langile diren irakasle funtzionarioei edo lan-kontratu finkodun langileei buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Argentinako Buenos Aires hirian maiatzaren 6an ospatutako *Buenos Aires celebra al País Vasco* ekitaldiari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, erlijio islamikoaren ikasgaia ezartzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Babes sozialeko sistema publiko eta kalitatezko baten aldeko eta pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkakoa.

IZAPIDETZEKO EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Batzorde Sustatzaile batek Babes sozialeko sistema publiko eta kalitatezko baten aldeko eta pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako Foru Lege proposamena aurkeztu zuen. Nafarroako Gobernuak aipatu foru lege proposamena aintzat hartzeari buruz 2018ko maiatzaren 9an harturiko bere erabakiaren ziurtagiria igorri dio Legebiltzarrari, eta adierazi du ez dagoela ados aipatu foru lege proposamena izapidetzearekin, aurrekontuko kredituen gehikuntza dakarrelako.

Herriaren Legegintza-ekimena arautzen duen martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legeko 6. artikularekin bat, hona ERABAKIA:

1. Babes sozialeko sistema publiko eta kalitatezko baten aldeko eta pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako Foru Lege proposamena izapidetzeko ez onartzea. Foru lege proposamena Imanol Carrera Turrillo buru duen Batzorde Sustatzaileak aurkeztu zuen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua hein batean aldatzen duena, amatasuneko edo aitatasuneko prestazioei dagokienez.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak honako foru lege proposamena aurkeztu dute: "Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua hein batean aldatzen duena, amatasuneko edo aitata-

suneko prestazioei dagokienez", eta eskatu dute irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea aipatu foru lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena, amatasuneko edo aitatasuneko prestazioei dagokienez

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuak, abenduaren 28ko 25/2016 Foru Legean hein batean aldatuak, 7. artikulua k) letran xedatzen duenez, beste prestazio batzuen artean, horietan barne Gizarte Segurantzari eta Errenta Bermatuari buruzko Lege Orokorrean araututako familia-prestazioak, "salbuetsiak egonen dira jaiotzagatik, adopzioagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak hartzeagatik, zurtasunagatik, haur batez baino gehiagoz erditzeagatik edo beste horrenbeste adoptatzeagatik edo minbiziak edo beste edozein gaixotasun larrik jotako seme-alaba adingabeak zaintzeagatik emandako gainerako prestazio publikoak, bai eta jaiotza-tasa sustatze aldera eta langileen lana eta familiako bizitza ongi uztartzeko kasuan kasuko deialdien bidez familiaren arloan emandako laguntzak ere".

Beste alde batetik, martxoaren 6ko 295/2009 Errege Dekretuak arautu egiten ditu Gizarte Segurantzako sistemaren prestazio ekonomikoak, amatasun, aitatasun, haurdunaldi bitarteko arrisku eta edoskitze naturalaren bitarteko arriskuagatik. Jaiotzagatiko prestazioen eta amatasun edo aitatasunagatik artean ezberdintasun terminologiko hutsa egoteak ekarri du hainbat interpretazio izatea prestazio horiek guztiek zerga-salbuespen bera ote duten zehazterakoan. Areago, gaiaren inguruan ebazpen judizial kontraesankor batzuk ere badira.

Kontuan hartuta Espainiako Konstituzioak, 39. artikuluan, ezartzen duela politika sozial eta eko-

nomikoaren printzipio gidarietako bat dela botere publiko guztiek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa eta adingabeen babes integrala segurtatu behar dutela –printzipio hori zenbait arautan jaso zen; esate baterako azaroaren 5eko 39/1999 Legean, langileen lana eta familia bateragarri egite aldera, zeinean amatasuna babesteko beharra berresten baita, edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoan–, egokitzat jotzen da amatasuneko bajaren eta aitatasuneko bajaren unean jasotzen diren prestazioek, zeinen funtsezko xedea baita adingabeak zaintzea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita geratzea, eta zergei buruzko legeen idazketak behar besteko segurtasun juridikoa eskaintzea.

Garrantzitsua da gurasoek adingabea zaintzeko eskubidea eraginkor egitea. Eta horretarako, gomendagarri gertatzen da zenbait neurri sozial eta ekonomiko onestea, familia-bizitza eta bizitza profesionala bateragarri egitea erraztuko dutenak. Halaber, garrantzitsua da arau fiskalak aitatasunaren edo amatasunaren unea sustatzeko eta babesteko kezka horri egokitzea, lehendik dauden eta jada aipatu ditugun arauetatik ondorioztatzen denez.

Legeen ikuspuntutik lana eta familia bateragarriak izan daitezten erraztea Nafarroako administrazio publikoen jarreran ezarrita dagoen ideia bat da. Horri aipamen egiten dio, esate baterako, uztailaren 27ko 242/2000 Foru Dekretuak, zuzeneko laguntza ekonomikoak arautzen dituena, langileen lana eta familia bateragarri egiteko eta jaiotzak sustatzeko neurri osagarri gisa. Bide horretan, halaber, toki entitateek urtero adingabeen zaintza errazteko eta, horrenbestez, familia eta lana bateragarri egiteko, laguntzak onesten dituzte.

Ildo berean, Nafarroako Arartekoak, Q16/677 Ebazpenean, arau-aldaketak iradokitzen zituen amatasunagatiko prestazio publikoak zergetatik salbuetsita egotea berreskuratzeko, 2012ko amaierara arte salbuetsita bai baitzeuden.

Lege-aldaketa honekin, helburu hori erdietsi nahi da politika fiskal ororen buruan egon behar duen izaera progresiboarekin eta justizia birbanatzailearen izaerarekin; horretatik heldu da errenta salbuetsiak ezartzea eta zehaztea, bai eta salbuetsita ez daudenak ere, gaur egun zergaren aplikazioaren ondorioetarako jasota dauden errenta-maila desberdinekin bat.

Artikulu bakarra.

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen da, 7. artikuluan k) letrari honako testu hau daukan tarteki bat gehitze aldera:

“Nolanahi ere, salbuesita egonen dira amatasunagatiko edo aitatasunagatiko prestazio publikoak, Gizarte Segurantzatik lan-etekin gisa jasotzen direnak. Salbuespen horrek eragingen die soilik 25.750 eurotik behera dauden lan-etekinei, familia gurasobakarren kasuan, eta 32.250 eurotik

behera dauden lan-etekinei, bi gurasok osaturiko familia-unitateen kasuan”.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Hala eta guztiz ere, bertan erregulatutako salbuespenak 2018ko ekitaldi fiskalaren itxieratik aurrera izanen du eragina. Ezin izanen dira atzeraeraginez erreklamatu gaur arte Gizarte Segurantzatik amatasunagatik edo aitatasunagatik lan-etekin gisa jasotako prestazio publikoetan PFEZa dela-eta egindako atxikipenak.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Zangozaldearen egoera ekonomiko, turistiko eta soziodemografikoari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko interpelazioa, Zangozaldearen egoera ekonomiko, turistiko eta soziodemografikoari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Javier Esparza Abaurrea foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Nafarroako biztanleriak azken hamarkadan izandako bilakaera izeneko azterlanean Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak ondorioztatzen du Nafarroako biztanleriak izandako hazkundea ez dela islatzen lurraldearen zati handi batean, hor biztanleria galtzen ari baitira. Zangozaldea, esate baterako, Pirinioen ostean biztanle gehien galtzen ari den eskualdea da. Guztira, % 5,17 biztanle gutxiago dago 2007an eroldan erregistratutakoen aldean.

Merindade horretako hiriburua, Zangoza, gehien galtzen duen udaletako bat da, hamar urte lehenago baino 126 biztanle gutxiago baitauzka 2017an.

Hortaz, errealitate demografiko hori frenatzeko eta Zangozaldera inbertsio produktibo eta dibertsifikatuak erakartzeko, honako interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari:

Zangozaldearen egoera ekonomiko, turistiko eta soziodemografikoa.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Interpelazioa, gazte-enpleguari buruzko politika orokorrari buruzkoa.*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa, gazte-enpleguari buruzko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariarentzako interpelazioa, gazte-enpleguari buruzko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Interpelazioa, enplegu publikoari eta behin-behinekotasunari buruzkoa.*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa, enplegu publikoari eta behin-behinekotasunari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Osasuneko kontseilariarentzako interpelazioa, enplegu publikoari eta behin-behinekotasunari buruzkoa.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berehala har dezan konpromiso irmoa Hezkuntzaren arloan gastu publikoa arrazionalizatzeko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuaren aplikaziotik heldu diren murrizketak lehengoratzeko.

MIREN ARANOA ASTIGARRAGA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita berehala har dezan konpromiso irmoa Hezkuntzaren arloan gastu publikoa arrazionalizatzeko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuaren aplikaziotik heldu diren murrizketak lehengoratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko:

Aurreko legegintzaldietan, UPN-PSN gobernuarekin, Nafarroako hezkuntza-sistemak murrizketa etengabeak pairatu ditu, bai azpiegituren arloan bai giza baliabideen nahiz baliabide materialen arloan eta langileen lan-balditzetan ere. Hezkuntza Departamentuarekiko utzikeriak, planifikazio ezarekin batera, eragin zuzena izan zuen hezkun-

tzaren kalitatean eta gure erkidegoko hezkuntza-sistemaren egonkortasunean.

2012an, egoera horrek inflexio-puntu bat pairatu zuen Hezkuntzaren arloan gastu publikoa arrazionalizatzeko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuarekin; izan ere, Nafarroan aplikatu zenean igo egin ziren ratioak, igo egin zen irakasleen eskola-zama eta areagotu egin ziren murrizketak bajen ordezkapenetan eta irakasleen baimenetan.

Nafarroako Gobernuaren 2015-2019 legegintzaldirako programa-akordioan besteak beste jasotzen da murrizketa horiek lehengoratzea. Gure ustez, aldaketaren gobernuaren helburu lehenetsi bat izan behar du hezkuntzaren kalitateari eta langileen eskubideei eustekak.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du berehala har dezan konpromiso irmo bat Hezkuntzaren arloan gastu publikoa arrazionalizatzeko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuaren aplikaziotik heldu diren murrizketak lehengoratzeko: ratioak, irakasleen eskola-orduak eta bajen ordezkapenak eta irakasleen baimenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du 2019-2020 ikasturterako irakasle guztien eskola-orduak lehengoratzeko finantzaketa eta ahokatzeko juridikoa bermatzeko konpromisoa har dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Enpresetarako Nafarroako eredu inklusibo eta parte-hartzaile bat sustatzeko jarduketa plana egin dezan.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Nafarroako Alderdi Popularreko eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Enpresetarako Nafarroako eredu inklusibo eta parte-hartzaile bat sustatzeko jarduketa plana egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Iragan otsailaren 7an, Parlamentu honetako Garapen Ekonomikorako Batzordeak lan-bilkura bat egin zuen Arizmendiarreta Lagunak Elkartearekin (9-18/SET 01), eta han iragarri zen ondotik heldu den mozioa aurkeztuko zela.

Azken hamarkada hauetan bi faktore izan dira lehia-esparrua gehien aldarazi dutenak nafar enpresei eta, oro har, mundu osoko enpresei begira: aurkikuntza zientifikoaren aitzinamendu azkarra eta horien aplikazio teknikoak eta produktioaren, banaketaren, finantzaketaren eta kontsumoaren prozesu ekonomikoaren globalizazioa.

Horren ondorioz, goitik behera aldatu da pertsonen enpresetan duten eginkizuna, pertsonen

arduratu behar dutelako kalitatearen, berrikuntzaren nahiz bezeroek egindako eskakizunei erantzunik onena ematearen kalitatea erdiesteko lehiatzeaz, lan-kostu askoz ere txikiagoak daukaten herrialdeei aurre egiteko.

Gauzak horrela, zenbait enpresaburu, zuzendaritza-kide eta sindikalista bat datoz esatean gure foru erkidegoan aitzina egin beharra dagoela enpresen eredu parte-hartzaile eta inklusibo baterantz, eragile guztiek enpresa-proiektu partekatu batean inplikatzeko erraztu eta bultzatuko duena.

Hona zenbait hausnarketa, enpresa askoren egoeratik abiatuta egin beharreko aldaketa dela eta:

1.- Aldaketa konfidantzan oinarrituta eraiki behar da, informazio garden, egia eta sistemati-ko batean oinarrituta, "eguneroko" parte-hartzea sustatuko duen kudeaketa-eredu batean.

2.- Beharrezkoa da enpresen aldaketa egiazkoa izatea, eta ez "kosmetikoa"; horrek berekin dakar enpresaburuaren eta langileen arteko harreman tradizionalaren eredua egokitzea eta enpresa barruko botere-harremanak nahiz enpresak sortzen duen aberastasunaren banaketa birplantatzea.

3.- Lehia-ingurune berriaren eraginez, aberastasunaren sorrera eta enpresa-proiektuen iraunkortasuna berrikuntzan eta enpresa posible egiten duten pertsonen erantzukizunean bermatzen dira, eta horrek esan nahi du arduratu egin beharra dagoela pertsona horiek lansari duin bat izateaz, horien prestakuntzaz, enpresa-proiektuarekiko atxikimenduaz, lanean pozik egoteaz, talde-lana errazten duen gizarte-kohesioaz, genero aldetik bidezko tratua ematea, bizitza profesionala eta familia bateragarri egin ahal izateari buruz kezkatzeaz...

4.- Aldaketak bere baitan hartu behar du enpresen helburuak modu zabalago batean ulertzea, eta ez soilik epe motzeko etekin handiena bilatuz. Hortaz, interesen konstelazio bat modu orekatuan asebetetzen duen organismo bat balitz bezala planteatu behar da enpresa, bidenabar

ekologia, giza eskubideak eta abar kontuan kontuan hartzen dituen.

5.- Aldaketaren ardura denona da, baina bereziki, enpresan agintea dutenena; halatan, nabarmendu beharrekoa da garrantzitsua dela enpresaburuak eta zuzendaritza-kideak eredu izatea eta sakondu egin beharra dagoela talde-lanerako kulturaren aldaketan, harremanen zintotasunean eta enpresaren iraunkortasunerako beharrezkoak diren aldaketetan.

6.- Halaber, ezin da ahaztu proposatzen den eredu berria ezinezkoa dela soldatak behar bezalakoak ez badira, enplegua ezegonkorra bada... izan ere, egoera horretan daude, batez ere, zerbitzuen sektoreko zenbait langile, eta soldata duin bat funtsezkoa da bizitza duin bat izateko eta ezein proiektutako kide izateko konpromisoa lortzeko.

7.- Botere publikoek –eta oro har, gizarteak– aldaketa babestu behar dute.

Administrazio Publikoak, bereziki, eginkizun erabakigarria izan behar du lortutako etekinen zati handi bat berrinbertitzea bultzatzeko, bai eta gure enpresen berrikuntzaren, garapenaren eta iraunkortasunaren alde egiteko ere.

8.- Enpresari ez zaizkio arrotz zenbait arazo sozial, tokiko inguruneari eragiten diotenak eta, ahal izanez gero, lankidetzaren publiko-pribatutik jorratu beharko lirakeenak. Aurrerapen teknologikoen exigituko duten prestakuntzaren eta langileen egiazko prestakuntzaren artean emanen bide den asinkronia paradigmakoa izan daiteke, bai eta talde marginatuen existentzia ere.

Halatan, proposamen zehatza bat planteatzen da, ez duena ukatu nahi kapitalaren eta lanaren arteko interesak ezberdinak direnik, ez eta inolako eskusibotasunik erreibindikatu nahi ere, ezpada gatazka hori bideratzeko modu berriak bilatu, langileek enpresan parte hartzearen bidez.

Enpresak guztion onurari egin diezaiokeen ekarpen handia aintzat hartzetik abiatzen da, horrek aberastasuna eta enplegua sortzeari begira berekin dakarrenarekin.

Ez da eredu zurrin ez behin betiko bat. Hortaz, era modulatu eta partzalean har daiteke, ez nahitaez era globalean.

Horren ezarpenaren aitzindari enpresaburuak izan behar dute, baina langileen eta erakunde publikoen nahiz gainontzeko eragile sozialen –unibertsitateak, prestakuntza-zentroak, eta abar– ordezkarien lankidetzarekin.

Hona eredu berriaren ardatz eta politika zehatzak:

1. ardatza. Enpresaren kudeaketa-jardunbideak eta kultura aldatzea, halako moduan non enpresaren lehiakortasunerako eta iraunkortasunerako oinarri izanen baitira konfidantza, gardentasuna eta lankidetzak.

Hartara:

a) Konfidantza-giroa sortu behar da, informazioaren gardentasun-politika baten bidez, langileei aldiro emanez enpresaren aldagai eta politika garrantzitsuenen gaineko informazioa, salbu eta hertsiki konfidentzialak izan litezkeenak.

b) Antolamendu- eta kudeaketa-eredu parte-hartzailea ezarri behar da, formula tayloristak gaudituko dituen eta langileen parte-hartzea sustatuko duena enpresa-berrikuntza eta -iraunkortasuna ere sustatzeko.

c) Prestakuntza-plan sistematikoak programatu eta garatu behar dira, langile bakoitzeko dedikazio-helburuekin, eta horietan sartuta prestakuntza teknikoa nahiz kudeaketa arlokoa. Erreferentzia gisa, pertsona bakoitzak urtean astebeteko prestakuntza izateko helburua jarriko litzateke, urtean plantillako langileen % 80ra iritsiz gutxienez ere.

d) Desberdintasun handirik sortuko ez duten eta gizarte-kohesioan lagunduko duten ordainsari-politikak bultzatu behar dira. Erreferentzia baliagarri bat izan liteke 1:6koa baino handiago izanen ez den soldata-tarte bat enpresa txiki eta ertainentzat; gomendagarria izanen litzateke, bestalde, ordainsariak nolabaiteko partaidetza bat jasotzea etekinetan, plantilla osoak baliatu ahal izanen lukeena.

e) Enpresan lan egiten duten perstonen asebetzea eta beharrezko aldi-aldi ebaluatzen eta hobetzeko sistemak ezarri behar dira. Erreferentzia bat izan liteke bi urtean behin azterlan sistematiko bat egitea.

f) Lehenetsuna eman behar zaio (esklusibotasunik gabe) barne-sustapenari ardura handiagoko eginkizunak esleitzeko, eta merezimenduen eta ekarpen-aukeren balorazio-irizpide objektiboak erabili behar dira hautagiak aukeratzeko.

g) Foru erkidegoan gizonen eta emakumeen arteko soldata-berdintasunaren bidean aurrera egin behar da.

h) Bizitza profesionala eta familia bateragarri egiten lagunduko duten formulak bilatu behar dira, enpresa-garapenari kalte egin gabe.

2. ardatza. Enpresaren jabeek, zuzendaritza-kideek eta profesionalak-langileek partekatutako proiektu bat formulatzea, epe luzean denentzat onuragarri izanen dena eta lehentasuna emanen diona talde-proiektuaren iraunkortasunari, talde-taldekoko edozeinen interesen gainetik.

Hartara:

a) Akziodunentzat eta langileentzat pizgarri orekatuak garatu behar dira aldi berean, halako moduan non helburu bateratu bat egonen baita akziodunen funts berekien gaineko errentagarritasuna eta langileen ordainsari globala aldi berean hobetzeko.

b) Urteko etekinen % 50 bideratu behar da gutxienez ere funts berekiak areagotzera, halako moduan non ekipoetan, I+G+i- jardueretan eta, horrenbestez, horien garapenean eta iraunkortasunean inbertitzen lagunduko baita.

c) I+G+i-ko jardueretara bideratu behar da sektoreko batez bestekotik gorako salmenten gaineko portzentaje bat.

3. ardatza. Kapitalaren eta lanaren arteko gatazka-dinamika gainditzeko bidean aurrera egitea, langileek kudeaketan, etekinetan eta jabetzan parte hartuz.

Hiru esparru horiek era partzial edo independentean edo bateratuan jorratzen ahal direla ulertuta ere, horiek garatzeak honako hauek ekarriko lituzke:

a) Kudeaketa-sistema parte-hartzaileak ezartzea, prozedura eta tresna egokiekin, berrikuntza eta antolamendu-aldaketak ekarriko dituztenak. Horrek erantzunkidetasuna ekarriko luke, halako moduan non ardatz exekutiboa nahiz ordezkari-tzakoa egonen lirarteke inplikaturako enpresa-proiektuaren erabaki garrantzitsuetan. Hartara, langileen ordezkariari kontsulta egin beharko litzaieke enpresaren erabakirik garrantzitsuetan, non eta ez duten tratamendu konfidentziala exigitzen.

b) Langileen ordezkariak sartzea enpresaren erabaki eta kontrol organo gorenetan. Gomendagarria litzateke ekiditea, salbuespenak salbuespen, ordezkari horiek aldi berean Enpresa Batzordean egotea.

c) Enpresaren kapitalean parte-hartze kolektiborako sarbidea ahalbidetzea, parte-hartze hori egiaz abian jarri ahal izateko finantzaketa-formula eta epe egokiak bilatuz. Bi modutara egi liteke: denei irekitako programa bati borondatez atxikitako langileen diru-ekarpenen bidez nahiz enpresaren ekarpenen bidez, negoziazio kolektiboaren emaitzetan parte hartzeagatik.

d) Enpresak babestea langileek kapitalean parte hartzea, langileek jabetzan sartzea ekonomikoki osatuz, aurretiaz ezarritako muga batekin.

e) Aintzat hartzea barne-gatazkak konpontzeko bitartekotza-organo baten garapena, hornitzaileekiko, bezeroekiko, ingurumenarekiko, gizarte-ingurunearekiko eta abarreko gatazketara ere heda litekeena.

4. ardatza. Enpresa-jarduketan gizarte-inpaktuekiko kezka eta ingurunearen arazo sozial batzuetan inplikatzeko.

Helburua litzateke enpresak hartzen dituen neurrien inpaktu sozialarekiko kezka zehaztea eta, ahal den neurrian, hori konpontzen inplikatzeko.

Honako hauek ekarriko lituzke:

a) Onestasan fiskaleko politika bat mantentzea, zerga-iruzurra eta -saihestea nahiz paradisu fiskalak erabiltzea ekidinez, halako moduan non ez diren gutxituko Nafarroako Foru Komunitatearen erronka ekonomiko eta sozialei aurre egiteko beharrezkoak diren baliabide publikoak.

b) Kualifikazio txikiagoko langileak laneratzera bideratutako gizarte-politiken gaineko hausnarke-tan, ebaluazioan eta, kasua bada, ezarpenean parte hartzea; izan ere, ere, langile horiek ekoizpen-prozesuetatik "bazter" gelditu daitezke teknologia berriak ezartzearen edo beren egoera pertsonalaren ondorioz.

c) Kasuko erakunde publikoekin lankidetzan aritzea Lanbide Heziketa, etengabeko prestakuntza eta unibertsitate-prestakuntza etengabe egokitu daitezen enpresen beharrezkoak; hartara, prestakuntza dualeko planak, praktikak, zerbitzu-eta ikaskuntza-programak ezarriko dira. Hitz batean, enpresa-munduaren eta prestakuntza-munduaren harremana etengabea izanen da proiektu komun bat eraikitzeko.

d) Enpresaren etekinen %1-%3 bideratzea arazo sozialak konpontzen laguntzeko, garapenerako laguntzarako, enpresaren xede sozialarekin lotutako unibertsitate-jardueretan laguntzeko eta abar. Hartara, baloratu egingen da langileak proiektuetan inplikatzeko aukera, eta horretan guztian aintzat hartuko da Enpresa Batzordearen iritzia.

e) Intraekintzailtzaren eta barne-kulturaren alde jardunen da, enpresako profesionalen eta zuzendaritza-kideen artean enpresa-bokazioa bultzatzeko, halako moduan non erkidegoarentzako aberastasuna eta enplegua sortzen duten proiektu berriak sortu ahal izanen baitira.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak, eredu horretan aitzina egiteko eta enpresak Nafarroan sustraitzea eta jarraitzea sendotzeko baliabide gisa ere, enpresen oinordetza-arazoak konpondu ahal izatea laguntzeko, Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa plan bat egin dezan nafar enpresen eredu inklusibo eta parte-hartzaile bat sustatzeko, legegintzaldi honetan eta hurrengoetan gara dadin. Planak, besteak beste, honako politika hauek jasoko ditu:

a) Eredu inklusibo eta parte-hartzaile batek berezkoak dituen kudeaketa-sistema parte-hartzaileak zabaldu eta ezar daitezzen laguntzea, horri gehituz Nafarroako enpresetan barne-komunikazioko politiketako jardunbiderik onenen definizioa eta ezarpena, helburuen definizioa, adierazleen hautaketa... zeinak funtsezkotzat jotzen baitira proposatutako aldaketarako.

b) Langileek enpresaren emaitzetan parte hartzeko sistemen ezarpena bultzatzea orobat, Nafarroan nahiz Europan arrakastarik handiena izan duten formulak identifikatzen lagunduz.

c) Langileei enpresaren kapitalean sar daitezzen erraztea, langile bakoitzak egindako ekarpenarekiko laguntza proportzional bat emanez, ezarri beharreko gehieneko batekin.

d) Jabetzan parte hartzea sustatzen laguntzen duten politika fiskalei dagokienez nazioartean baliatzen diren praktikarik onenak identifikatzea.

e) Formula juridiko egokiak eta, kasua bada, lege bat taxutzeko aukera aztertzea, egungo araudia perfektionatzeko edo/eta botere-banaketaren eta emaitzen errekerimenduei hobeki egokitutako lege-tresna bereki bat diseinatzeke, inplikaturako langileek ezartzen dituzten berariazko irizpideen arabera.

f) Partaidetzako Enpresen Erregistro bat sortzea, enpresen sustapenean ezartzen diren neurriei segurtasun juridikoa ematen laguntzen ahalko duena. Erregistroan izena eman ahalko dute kapitaleko parte-hartzearen portzentajea ezarritako gutxieneko minimotik goitiko daukatenak eta, aldi berean, ezartzen ahal diren bestelako baldintza gehigarri batzuk betetzen dituztenak.

g) Eredu inklusibo eta parte-hartzailearen ezarpena ebaluatzeke eredu bat prestatzen laguntzea, enpresei izandako aurrerabideak identifikatzen lagunduko dien check list batekin.

h) Enpresaburuei eta langileei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainetan laguntzea, proposatutako eredu inklusibo eta parte-hartzailea sustatzeko.

i) Eredua ezartzerakoan nabarmentzen diren enpresei prestigioa ematea, hori dela-eta sariren edo aitortzaren bat antolatuta.

j) Enpresa-kudeaketari, estrategiari eta abarrei buruzko prestakuntza-jarduerak garatzea, Enpresa Batzordeetako kideei, ordezkari sindikalei, sindikaturako liberatuei... zuzenduak, bai pertsona horientzat bereziki, bai inplikaturako enpresetako zuzendaritza-kideekin batera.

k) Ereduaren zabalkundea egiteke eta adierazitako ekintza-planak betetzeko beharrezkoak diren baliabideak aurreikustea aurrekontuetan.

j) Ereduaren aplikaziotik hel daitezkeen beste batzuk.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 10ean.

Foru parlamentariak: Carlos García Adanero, Jokin Castiella Imaz, Adolfo Araiz Flamarique, Carlos Couso Chamarro, Guzmán Garmendia Pérez, Ana Beltrán Villalba eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuan Nafarroa sartzearen aurka dagoela.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuan Nafarroa sartzearen aurka dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kide Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du

Osoko Bilkurarako, Mahaian eta Eledunen Batzarrean izapidetzeko:

Euskal nazionalismoak Nafarroako Foru Komunitatea berriro sartu nahi du bere lurraldeen artean. Euskara Euskal Herria deituriko falazia hori eraikitzeko beharrezko tresna gisa aipatzen dute berriz ere.

Agerikoa da Nafarroako erakundeei eta Nafarroan bizi diren pertsonen dieten errespeturik eza. Nafarroa alboko autonomia erkidegoko beste probintzia bat balitz bezala tratatu nahi dute.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio Nafarroari, araubide, autonomia eta erakunde berekiak dituen foru erkidego gisa, Espainiako nazioan integratua eta bere herri guztiekiko solidarioa.

2. Nafarroako Parlamentua Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuan Nafarroa sartzearen aurka dago.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu antolakuntza feministek kaleratutako manifestuarekin, genero indarkeriaren aurkako estatu-ituna 2018rako aurrekontuetan ez betetzeagatik.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentua bat dator adierazpen honekin batera doan manifestuaren edukiarekin, zeina kaleratu baitute maiatzaren 16rako mobilizazioak deitu dituzten antolakuntza feministek

genero indarkeriaren aurkako estatu-ituna 2018rako aurrekontuetan ez betetzeagatik, eta herritarrei dei egiten die Nafarroako Foru Komunitatean programaturiko deialdiekin bat egin dezaten”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu ulertzen duela Loxin 2002 SL enpresako plantillak bere profesionaltasuna eta eskubideak aldezteko hasitako borroka eta bere babesa adierazten baitio.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, ondo adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ulertzen duela Loxin 2002 SL enpresako plantillak bere profesionaltasuna eta eskubideak aldezteko hasitako borroka eta bere babesa adierazten dio.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du egokitzat jotzen dituen izapideak egiteko

Nafarroako Gobernuan, hura premiatze aldera beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzan Avic International partzuergo txinatarrarekin negoziazioak hasteko, Loxin 2002 SL Enpresa Nafarroan hazi eta errotzeko xedez”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu gizartearen eta Tarajaleko Biktimen Senitartekoen Elkartearen eskaerarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, ondo adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak, Tarajaleko gertakizunen laugarren urteurrena dela eta, bat egiten du gizartearen eta Tarajaleko Biktimen Senitartekoen Elkartearen eskaerarekin, eta justizia, egia eta erreparazioa eskatzen du Tarajaleko 15 biktimentzat, honakoak baitira: Soup Tagne, Armand Ferdinand, Dauda Mahama, Larios Fotio, Nana Chimie Roger, Ousman Hassan, Ibrahim Keyta, Jeannot Flame, Bilong Martin Yves, Bikai Luc Firmin, Blaise Fotchin, Aboubakar Oumaourou Maiga, Samba Baya, Youssouf eta identifikatu gabeko beste bi gazte.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuarekiko sumindura adierazten du hama-lau familia kamerundarrei eragozteagatik Parla-

mentura etortzea justizia, egia eta erreparazioa exigitzera otsailaren 6ko goizaldean Tarajalen izandako gertakariekiko.

3. Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Estatuko Gobernuaren jarrera, horren ondorioz Nafarroako herritarrei ukatu egin baitzaie duela lau urte baino gehiago Ceutako mugan izandako gertakarien atzean dagoen egia ezagutzea.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren bisatuak eman diezazkien Tarajalgo Biktimen Familien Elkarteko kideei gure erkidegora etor daitezen beren egoera azaltzera eta beren eskaerei dagokien bidezko arreta jasotzera”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa zein arrazoi izan zituen Nafarroako Gobernuak Larrialdietako Unitate Militarraren uholdeen aurkako zerbitzuaren laguntza ez eskatzeko.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zein arrazoi izan zituen Nafarroako Gobernuak Larrialdietako Unitate Militarraren uholdeen aurkako zerbitzuaren laguntza ez eskatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Landa Garapeneke, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroak hitzarmena dauka Larrialdietako Unitate Militarrarekin –IV. Batailoiak Zaragozan dauka bere egoitza–, baina apirilaren 11ko, 12ko eta 13ko uholdeetan ez zen eskatu haren unitate-ek eta “uholdeetarako” baliabideek Nafarroako herrietan parte har zezaten. Uholde haiek Aragoi ere gertatu ziren, eta han ikusi ahal izan genuen unitate hori lanean, pertsonal espezializatuarekin, lubeta, dike, bide, ibilgu eta abarretan. Gure herriek lan hori bera egin nahi izan zutenean makineria pribatua alokatu behar izan zuten, ura alde guztietan egonik lan egin behar zuena, horrek dakarren arriskuarekin.

– Nafarroako Gobernuak zergatik ez zuen eskatu Larrialdietako Unitate Militar horren uholdeen aurkako zerbitzua?

– Lanik egin al da eremu urperakorretan, aseruetan? Baloratu al da ukitutako lurzatien balio-galera? Erantzuna baiezkoa baldin bada, zein izan da lan horien emaitza?

– Zer erabaki hartu dira ibaiak garbitzeari eta mantentzeari dagokienez?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten nafar ikasleentzako arreta-planari buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten nafar ikasleentzako arreta-planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

2012an zehar Goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten nafar ikasleentzako arreta plan bat taxutzeko eta garatzeko lan egin zen. Goi-mailako adi-

men-gaitasunak dituzten nafar ikasleentzako arreta planak lehentasuna ematen zion zenbait ekin-tzari, adibidez: ikastetxeetan zabaltzea, irakasleen prestakuntza, proba diagnostikoak eskuratzea, baliabide-banku bat sortzea eta proiektu pilotuak zenbait ikastetxetan azaltzea.

Zehaztuko al dizkiguzu plan horren emaitza, egindako ekintzak eta ondorioak?

Goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleentzako arreta garatzeko:

Curriculuma aberasteko materialik prestatu al da?

Goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten nafar ikasleentzako arretarako estrategia bat aztertzekeo lantalderik ba al dago?

Lantalde bat eta arretarako estrategia bat baldin badaude: Zer koordinazio-lan egiten da adituekin, familiekin, irakasleekin, orientatzaileekin eta CREENarekin?

Nola ematen zaie aholku ikastetxeei? Adierazleaz azalpenean honako zehaztasun hauek jaso nahi ditut: ikastetxeei aholku emateko bilerak, lantaldeak sortzea, zenbait irakasgaitan aberasteko unitate didaktikoak prestatzea, eta abar.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko langile diren irakasle funtzionarioei edo lan-kontratu finkodun langileei buruzkoa.

MÓNICA DOMENECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Domenech Linde andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko langile diren irakasle funtzionarioei edo lan-kontratu finkodun langileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Hezkuntza Departamentuari atxikitako CREENA-Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroan

goi-mailako adimen-gaitasunak dituzten ikasleentzako arreta garatzera dedikatzen diren irakasle funtzionarioen edo lan-kontratudun finkoen xehetasuna:

Zenbat lanpostu dago gaztelaniaz eta zenbat euskaraz eskola-orientatzaile izateko Bigarren Hezkuntzako goi-mailako adimen-gaitasuneko ikasleentzako irakasle edo katedradun izateko?

Zenbat lanpostu dago gaztelaniaz eta zenbat euskaraz goi-mailako adimen-gaitasuneko ikasleentzako pedagogia terapeutikoko maisu izateko?

Goi-mailako adimen-gaitasuneko zenbat ikasle dago Nafarroan? Zenbat dira mutilak eta zenbat neskak?

Sare publikoan eta sare itunduan ikasten duten goi-mailako adimen-gaitasuneko ikasleen xehetasuna, sexuaren, adinaren eta ikastetxea dagoen herriaren arabera. Goi-mailako adimen-gaitasuneko ikasle horietako zenbatek ikasten dute Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan? Zehaztu datuok, sare publikoaren eta sare itunduan banaturik.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, Argentinako Buenos Aires hirian maiatzaren 6an ospatutako *Buenos Aires celebra al País Vasco* ekitaldiari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Argentinako Buenos Aires hirian maiatzaren 6an ospatutako *Buenos Aires celebra al País Vasco* ekitaldiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Nafarroako Gobernuak zer dela-eta parte hartu du Buenos Airesen maiatzaren 6an eginiko “Buenos Aires celebra al País Vasco” ekitaldian?

– Erakunde-harremanik al duzue ekitaldi hori antolatu duen Laurak Bat kolektiboarekin?

– Nafarroako Gobernuak ba al daki kolektibo horrek ez duela Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen –erkidego berezitua izatea, erakunde berekiak dituen eta Espainiako nazioan integratua egotea–?

– Ba al daki kolektibo horrek ez duela inolako jardura bateratutan parte hartzen Espainiako gainontzeko autonomia erkidegoetako zentroekin, Nafarroako Zentroa barne?

– Espainiako Gobernuak ba al daki kolektibo horrek euskal independentismoaren tesiak defendatzen dituela?

– Nafarroako Gobernuak ba al daki ekitaldi horretan erabiltzen diren euskarri guztietan gehien erabilitako sinboloa Euskal Autonomia Erkidegoko ikurrina dela?

– Nafarroako Gobernuak ba al daki ekitaldian erabilitako irudi, publizitate eta jardura guztia bideratuta dagoela Euskal Herria Espainia ez den zerbait bezala erakustera?

– Hori guztia baldin badaki, zergatik parte hartzen du Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duen ekitaldi batean, non nafar gehienek borondatearekin eta Foruaren Hobekuntzan nahiz Espainiako Konstituzioan babestu eta jasotakoarekin bat ez datorren Nafarroaren irudi bat ematen baita?

– Zein da Nafarroako Gobernuak ekitaldi horretan parte hartzearen kostua?

Corellan, 2018ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, erlijio islamikoaren ikasgaia ezartzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, erlijio islamikoaren ikasgaia ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Solana kontseilariak iragan martxoaren 13an Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean eginiko agerraldian 2018-2019 ikasturterako erlijio islamikoaren ezarpenaz informatu zuen, eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen ikasturtetik goitiko etapetako ikasleentzat irakasgai hori ezartzeari buruz galdetu zitzaion. Ez zuen erantzunik eman.

9-18/PES 79 ekimenari emandako erantzuna jaso ondoren, eta planteatutako auzietako bati erantzuten ez zaiola ikusita, honako galdera zehatz honi erantzutea eskatzen da:

– Hezkuntzako kontseilariaren ustez, araudi indarduna ez betetzea eta eskubideak ez onartzea al da Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailako ikasleei erlijio islamikoaren ikasgaia ezartzeko aukerarik ez ematea, legeak ezarritako betekizun guztiak betetzen dituztenean?

Corellan, 2018ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

